



TXOSTEN TEKNIKOAREN EREDUA

Dirulaguntzei/hitzarmenei eta kontratuei lotutako dokumentazio teknikoaren entregatzeko txantiloia

Eredu honek egitura komun bat ezartzen du Euskadiko natura-ondarearen ezagutzarekin, kontserbazioarekin, kudeaketarekin, jarraipenarekin edo ebaluazioarekin lotutako dirulaguntzei/hitzarmenei edo kontratuei lotutako txosten teknikoak entregatzeko. Helburua da entregatutako dokumentazioa argia, osoa, egiaztagarria eta berrerabilgarria izatea, bai berrikuspen teknikorako, bai, hala badagokio, Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistemari sartzeko.

Eredua lan bakoitzaren izaerara eta irismenera egokitu behar da. Atal edo elementu guztiak ez dira nahitaez aplikagarriak izango txosten guztietan, baina jasotako informazioak aukera eman beharko du egiaztatzeko entregatutako dokumentuaren eta dagokion dirulaguntzan/hitzarmenean edo kontratuan onartutako xedearen, lan-ildoaren, jarduketaren edo produktuaren arteko koherentzia.

Dirulaguntzen/hitzarmenen kasuan, erakunde bakoitzak eredu hau bere txantiloia edo lan-formatuetan integratu ahal izango du. Kontratuen kasuan, eredu hau erakunde lizitatzailerak emandako txantiloian integratu beharko da.

A. Identifikazioa

Atal honetan txostena, egiletza, entrega-data eta bertsioa identifikatzeko oinarriko datuak jasotzen dira, baita dagokion dirulaguntzarekin/hitzarmenarekin edo kontratuarekin duen lotura ere.

- **Izenburua:** Txostenaren izenburu osoa, deskribatzailea eta espezifikoia.
- **Erakundea:** Txostena egiteko ardura duen erakundea. Lanean parte hartu duten talde teknikoko pertsonak ere jaso daitezke.
- **Nola aipatu:** Txostenaren gomendatutako aipamen bibliografikoa¹.
- **Data:** Txostenaren jaulkipen- edo itxiera-data.
- **Bertsioa:** Adierazi bertsio publikoa den edo sarbide mugatuko bertsioa den.
- **Erreferentzia:** Adierazi dagokion dirulaguntza/hitzarmena edo kontratua, eta hari lotutako lan-ildoak, jarduketa edo proiektua.

B. Laburpen exekutiboa

Laburpen exekutiboak aukera eman behar du egindako lanaren funtsezko edukia, erabilgarritasuna eta sortutako produktuak modu laburrean identifikatzeko. Txostenaren izaeraren eta irismenaren arabera aplikagarriak diren elementuak jasoko dira.

¹ Ikusi [Nola aipatu dokumentu bat - Eusko Jaurlaritza - Euskadi.eus](#)

- **Lanaren xedea:** txostenak ematen duen informazioaren eta Euskadiko natura-ondarearen kontserbaziorako, plangintzarako, kudeaketarako, jarraipenerako, ebaluaziorako edo ezagutzarako duen erabilgarritasunaren azalpen laburra, euskaraz eta gaztelaniaz.
- **Lanaren xede diren natura-ondareko elementuak edo aztertutako kontserbazio-neurriak:**
 - Espezieak: izen zientifikoen zerrenda.
 - Habitatak: kodeen eta izenen zerrenda.
 - Kontserbazio-neurriak: kodeen eta izenen zerrenda.
- **Azterketa-aldia:** txostenak hartzen duen denbora-aldia.
- **Kokapen geografikoa:** adierazi azterketa Euskal Autonomia Erkidego osoari dagokion ala haren zati bati. Azken kasu horretan, aplikagarriak diren zerrendak emango dira:
 - Lurralde historikoak
 - Udalerriak
 - Lekuak: kode eta izen ofizialak
 - Lauki-sareak
 - Ur-masak
 - Beste mugaketa geografiko batzuk
- **Datu orokortuak:** adierazi datuak orokortu diren informazio sentikorra ez sartzeko. Hala badagokio, azaldu zer datu orokortu diren eta zer metodo aplikatu den.
- **Informazio gehigarria:** adierazi dokumentuaren beste bertsiorik dagoen, adibidez, datu sentikorrak jasotzeagatik sarbide mugatuko bertsioa edo beste hizkuntza bateko bertsioa.
- **Emaiza nagusiak:** lortutako emaitzarik garrantzitsuenak, metodologia-informazio zabala sartu gabe.
- **Ondorio nagusiak:** emaitzetatik zuzenean eratorritako ondorioak.

C. Aurrekariak eta xedea

Atal honek txostena bere testuinguruan kokatu behar du, eta argi azaldu zer lan egin den, zergatik egin den eta zer konpromisori, lan-ildori, jarduketari edo produkturi erantzuten dion. Aukera eman behar du egiaztatzeko txostenaren edukia koherentea dela haren jatorri den dirulaguntzaren/hitzarmenaren edo kontratuaren xedearekin.

- **Testuingurua:** lana egiten den esparru teknikoa, administratiboa, lurraldekoa edo arau-esparrukoa.
- **Dirulaguntzaren/hitzarmenaren edo kontratuaren xedea:** diruz lagundutako, hitzartutako edo kontratatutako lanaren helburu zehatza.
- **Irismena:** txostenaren muga materialak, lurraldekoak, denborazkoak eta teknikoak.
- **Helburuak:** helburu orokorra eta, hala badagokio, helburu espezifikoak.
- **Onartutako lan-ildoarekiko lotura:** lanak zer jarduketari, ildori edo produkturi erantzuten dion.

D. Metodologia

Atal honek behar besteko zehaztasunez deskribatu behar du informazioa nola lortu, tratatu eta aztertu den, emaitzak trazagarriak izan daitezen eta behar bezala interpretatu ahal izan daitezen.

- **Erabilitako metodoak:** landa-tekniken, analisien, dokumentazio-berrikuspenaren, datuen tratamenduaren edo aplikatutako beste metodo batzuen deskribapena.
- **Informazio-iturriak:** erabilitako dokumentu-iturriak, datu-baseak, kartografia, araudia, elkarriketak, laginketak edo bestelako iturriak hautatzeko azalpena.
- **Lurralde-eremua:** azterketa-eremua hautatzeko azalpena.
- **Aztertutako aldia:** hautatutako daten, kanpainen, urtealdien edo hartutako denbora-tartearen azalpena.
- **Datuen tratamendua:** aplikatutako depurazio-, balidazio-, agregazio-, analisi espazialeko edo tratamendu estatistikoko irizpideak.
- **Kalitate-kontrola:** erabilitako informazioaren eta lortutako emaitzen koherentzia, fidagarritasuna, osotasuna eta trazagarritasuna bermatzeko egindako egiaztapenak.
- **Mugak:** metodologiarekin, estaldurarekin, datuen eskuragarritasunarekin, ziurgabetasunekin edo baldintzatzaile garrantzitsuekin lotutako mugak.

E. Emaitzak

Emaitzak modu ordenatuan aurkeztu behar dira, argi bereizita lortutako datuak, haien analisia eta, hala badagokio, egindako interpretazio teknikoak. Txostenak taulak, irudiak, argazkiak edo kartografia baditu, lotutako fitxategiak ere entregatu beharko dira formatu normalizatu eta editagarrietan.

- **Emaitzak:** lanaren emaitzen azalpen egituratua.
- **Taulak:** zenbakitutako eta izenburudun taulak, eta, hala badagokio, iturria adierazita.
- **Irudiak:** txostena ulertzeko beharrezkoak diren grafikoak, eskemak edo bestelako irudiak.
- **Argazkiak:** txostena hobeto ulertzeko beharrezkoak diren argazkiak.
- **Kartografia:** emaitzei lotutako mapak edo planoak.

F. Ondorioak

Atal honek egindako lanetik eratorritako ondorio teknikoak jaso behar ditu, emaitzen deskribapen hutsetik argi bereizita. Ondorioek koherenteak izan beharko dute aplikatutako metodologiarekin eta aztertutako datuekin, eta aukera eman beharko dute txostenak natura-ondarearen ezagutzari, kontserbazioari, kudeaketari, jarraipenari edo ebaluazioari egiten dion ekarpena baloratzeko. Hala badagokio, etorkizuneko gomendioak edo jarduketa-proposamenak jaso ahal izango dira, betiere lortutako emaitzek justifikatzen badituzte.

- **Emaitzen sintesia:** lortutako emaitzen laburpen teknikoak.

- **Ondorio nagusiak:** emaitzetatik zuzenean eratorritako ondorioak.
- **Gomendioak, hala badagokio:** hobekuntza-, jarraipen-, kudeaketa-, eguneratze- edo etorkizuneko lan-proposamenak.

G. Erreferentziak

Atal honek txostena egiteko benetan erabilitako erreferentziak baino ez ditu jaso behar, informazioaren jatorria, aplikatutako araudia eta erabilitako datu-iturriak egiaztatu ahal izateko. Zuzenean erabili ez diren erreferentziak ez dira sartu behar.

- **Bibliografia:** txostenaren azterketan, interpretazioan edo prestaketan zuzenean erabilitako argitalpenen, txostenen, artikuluen, eskuliburuaren edo bestelako dokumentu tekniko edo zientifikoen zerrenda.
- **Araudia:** ikuspegia, irizpide teknikoak edo emaitzen interpretazioa baldintzatu duten arauen, planen, estrategien, ebazpenen edo bestelako tresna aplikagarrien zerrenda.
- **Informazio-iturriak:** abiapuntuko informazio gisa edo egindako lanaren euskarri gisa erabilitako datu-baseen, gordailuen, informazio-sistemen, kartografiaren edo bestelako datu-multzoen zerrenda.

H. Eranskina. Entregatutako fitxategi erantsiak

Txostenaren emaitzak dokumentatzeko, justifikatzeko, egiaztatze edo berrerabiltzeko beharrezkoa den informazio osagarria badago, eranskin gisa sartuko da entregatutako fitxategien zerrenda argi bat, haien edukia, formatua, hizkuntza eta dagokion atalarekiko lotura adierazita.

Eranskin edo fitxategi osagarriek honako hauek jaso ahal izango dituzte:

- **Datuak:** behaketen bildumako edo jarraipen-programetako Excel fitxategiak, emaitza analitikoak edo bestelako lehen mailako datuak.
- **Adierazleak:** taulak, joera-grafikoak, ebaluazioak edo bestelako emaitza egituratuak dituzten Excel fitxategiak.
- **Kartografia:** shp formatuko geruza geografikoak edo SIG proiektuak.
- **Multimedia:** irudi-, audio- edo bideo-fitxategiak, atribuzioa adierazita —baliabidearen izenburua edo deskribapena, egileta, eskubideen titulartasuna, iturria, aplikagarria den Creative Commons lizentzia eta, hala badagokio, egindako aldaketak— eta, dagokionean, erabilera-baldintzak.
- **Fitxak:** datuak biltzeko fitxak, formularioak, protokoloak, egiaztapen- edo kalitate-kontroleko zerrendak edo bestelako elementuak.
- **Material osagarria:** dokumentazio lagungarria edo bestelako materialak.

Fitxategi erantsiei izen labur, egonkor eta irakurgarriak emango zaizkie, honako elementu hauek azpimarrarekin () elkartuta:

- Urtea.
- Erakunde egilearen akronimoa.

- Identifikatzeko izen laburra, ahal dela 25 karaktere baino gutxiagokoa, eta terminoak marratxo ertainarekin (-) elkartuta. Letra xeheak erabiliko dira, azenturik gabe, zuriunerik gabe eta @, #, ', >, ç edo ñ bezalako karaktere berezirik gabe.
- Hizkuntza-identifikatzailea: euskera (eu), gaztelania (es), euskera-gaztelania (es-eu), ingelesa (en) edo frantsesa (fr).
- Beharrezkoa denean, bertsio-identifikatzailea: bertsio publikoa (P) edo sarbide mugatuko bertsioa (M).

Adibideak:

- 2024_ekolur-nayades-odonatos-zec-zadorra_es_P
- 2025_aranzadi-urdaibaiko-anfibioak_eu_M